

Emakume Aske eta Borrokalariak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



Zapalkuntza kapitalistaren eta indarkeria matxistaren aurka

GURE INDARRA KALEAN DAGO



Gure indarra kalean dago

Feministak eta antikapitalistak gara

Milioika emakume altxa gara mundu zuztarian zehar umiliazio, abusu, indarkeria eta esplotazio jasangaitzaren aurka. Martxoaren 8koa bezalako egun historikoek argi erakutsi dute: mugimendu feminista erraldoia, gehiengo miseriara kondenatzen duen sistema politikoa eta ekonomiko horren aurrean zapalduok eman dugun erantzunaren baitan biltzen da.

Emakumearen papera klase arteko borrokan

2008/2009ko atzeraldi handiak bereziki gogor kolpatu gaitu emakume langileak. Gure bizkar gainean jasaten dugun zama biderkatu dute mundu guztiko gobernu kapitalistek osasunean, menpekotasun laguntzetan, soldatetan eta pentsioetan aplikatu dituzten murrizketa andanak eta eraginidako etxe kaleratzeak. Era berean, ordea, polarizazioa eta ezkererako biraketa elikatu du langile klasearen eta gazteen sektore zabalen artean.

Altxamendu, politizazio eta geroz eta zabalagoa den sista-

temaren kritikaren giro honetan, matxismoaren aurkako eta gure askapenaren aldeko borroka nazioarteko oihartzuna hartu du eta langile klaseko emakumeok lehen mailako papera jokatzeko dugu bertan. Horrela soilik azal daiteke duen izaera. Horrela soilik azal daiteke duen izaera. Horrela soilik azal daiteke duen izaera. Horrela soilik azal daiteke duen izaera.

Egun hauetan, Aljeriako eta Sudan gobernuak altxamendu iraultzaileetan emakume pobreen parte hartzea masiboa izaten ari da. Mugimenduaren %70 emakumeak direla kalkulatzen da. Ez da kasualitatea. Herrialde horietan sharia lege islamiarra aplikatzen da. Emakumeak zapalduak daude eta ez dute eskubiderik. Horregatik, zapalduenak eta kolpatuenak, altxamendu sozialaren eta iraultzaileen abagunean, borroka lehen lerroan kokatzen dira.

Gure mugimendua eskuinaren jo puntuan

Mobilizazio horiek argi erakutsi dute gure mugimenduaren oinarrian dagoen sentimendu antikapitalista indartsua. Kolpatzen



gaituen justizia matxista salatu dugu, sistemakoa den indarkeriaz jazarren gaituzten instituzio burgesak. Gutxiago ordaindu eta gehiago esplotatzen gaituzten enpresariak seinatu ditugu. Gure bizitzako arlo guztietan Eliza Katolikoak ezartzen duen boterearen aurka indartsu egin dugu borroka.

Klase agintaria mundu mailan segituan ohartu da zer suposatzen duen kalean erakutsi dugun indarrak eta beste borroketzat izan garen inspirazio iturriak. Horregatik erreakzionatu dute hain gogor.

Estatu espainiarrean hori oso gertutik bizi ahal izan dugu. PP, Cs eta Voxen bloke atzerakoiak behin eta berriz ekin dio emakumeen eskubideak erasotzeari, hiru alderdik partekatzen duen ADN frankista duen diskurtso guztiz matxista eta misoginoan.

Alde batetik PPK eta Voxek aurrez aurre erasotu dute abortu eskubidea. Adierazpen guztiz makabroak entzun behar izan ditugu: "Neanderthalek ere erabiltzen zuten [abortua], baina jaiote arte itxaroten zuten eta, orduan, burua moztzen zioten" (PPko Suarez Illanak esana) edo "8 urteko mutilak kurtsuak ematen zaizkie, non neska izaten saiatu behar duten, eta neska mutila [...]; praktika sexual berriak probatzera proposatzen zaie" (Rocio Monasterio, Vox). Eta beste aldetik, Ciudadanosek bere "formula feminista" berriarekin emakumeen esplotazioaren eta sexu esklabotzaren alde egin du, prostituzioa eta sabelen alokairua erregulatzea eta legeztatzea eskatuz.

Zuzenean kolpatzeko estrategiak edota emakume guztiak barrikadaren alde berean gaudela sinestartzekoak helburu berbera dute: hain sutsuki defendatzen duten sistema kapitalistaren oinarriak zalantza jarri dituen mugimendu handi hau geldiaraztea.

Feminismo transbertsala edo emakumeak esplotatzen dituzten emakumeak

Emakumearen askapen mugimendua gatazka ideologiko batean dago feminismo iraultzailearen eta sistemaren feminismoaren artean; zapaltzaile eta zapalduak bereizten ditugun artean eta beren lerroetan emakume zein gizonak esplotatzen dituzten emakumezko burgesak onartzen dituzten artean.

Feminismo transbertsalararen aldeko mugimendu feministaren borroka otzatzeko eta langile klasea eszenatik aldentzeko egin diren saiakerak asko izan dira, eta ez dira soilik eskuineko alderdietatik etorri. Burgesiak bere bozera-maileak erabili ditu horretarako eta buru belarri ekin dio. Dagoeneko 2018an feminista aberatsen moda berriaren defileak ikusi genuen: Ana Patricia Botín, Ceko politikariak eta baita Letizia erregina ere; Ivanka Trumpen adierazpenak eta bere uesteko "feminismoa", FMiko presidentea den Christine Lagarderen "alde feminista"... Baina, era berean, ikusi ditugu baita ere ezkerreko feminista gisa mozorrotzen saiatzen zirenak ere, Kate Millet eta Silvia Federicci esaterako. Emakumearen inguruan marxismoak defendatzen dituen ideien aurkako erasoa abiatu dute mota guztietako gezur eta manipulazioak erabiliz.

Horiek guztiak, burgesiako edo burgesia txikiko emakumeak, kapitalismoaren eliteko postua eskuratu dute edota hori eskuratzeko dute helburu. Sistemaren arauak defendatzen dituzte eta ez dituzte zalantzan jartzen, nahiz eta horrek emaku-

me langile eta gazteen gehiengo, eta langile klaseko gizonzakoak ere, zapaltzea ekarri. Emakume guztiak ez gaude lubaki berean. Akaso gure banderaren azpian hartu behar al ditugu Alabaman abortua galaraztea baimendu duen emakumezko gobernuburua edo España, una, grande y libre defendatzen duten emakumeak?

Gure kateak apurtu, sozialismoaren alde borrokatu

Feminista iraultzaileok ulertzen dugu gure askapenaren aldeko borroka ez dela soilik genero auzia, baizik eta, batez ere, klase auzia dela. Eta klaseaz hitz egiten dugunean, kapitalismoak esplotatzen gaituen guztien elkartasunaz ari gara, gure azalaren koloreak edo jaiterriak axola gabe. Matxismoaren aurka borrokatzeak erregimen kapitalistaren aurka borrokatzea esan nahi du, jasaten dugun zapalkuntza babesten duten instituzioen aurka.

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista defendatzen dugu. Gure indarra kalean oinarritu behar dugu, lanpostuetan eta ikastetxeetan antolatuz, jo puntuan ezarritu gure askatasun kolektiboaren aldeko borroka. Lanpostu duinaren alde, osasungintza, hezkuntza, haur eskola eta etxebizitza publikoak lortzeko borrokatuz, eta gure zapalkuntzatik aberasten diren botere ekonomiko handien eta sexu esplotazioaren aurka borrokatzeko baldintza materialak bermatuz. Askapena lortzeko ezinbestekoa da gizarte berri bat eraikitzea. Berdintasun osoa eskuratu ahalik dugun gizarte sozialista dugu helburu.

Aski da! Borrokatzen dugunon aurkako errepresiorik ez!

PSOEren gobernuak isuna jarri digu M8ko manifestazioan Madrilen

Madrilgo Gobernuaren ordezkariak (PSOE) 600 euroko isuna jarri digu Emakume Aske eta Borrokalarioi eta Ikasle Sindikatuari, Martxoaren 8ko manifestaziora leloak kantatzeko eta gure segizioa antolatzeko megafoniadun kamioiarekin joateagatik; ohikoa den zerbitu da eta urteak daramatzagu egun horretako manifestazioetan hori egiten.

Emakume Aske eta Borrokalarioi eta Ikasle Sindikatuak grebara deitu genuen, 50 hiri baino gehiagotan goizeko ikasle manifestazioak antolatu genituen eta M8ko Batzordean parte hartu genuen. Hala ere, udaltzainoak eta polizia nazionalak gure megafonia sartzea debekatu zuten eta Manuela Carmeneren Udalaren eta Pedro Sanchezen Gobernuaren ordezkariaren agindu zuzenaren atzean babestu ziren.

Guztiz onartezina da bere burua aurrerakoitzat eta "feministatza" duen gobernu eta ordezkariak batek mugimendu feministan parte hartzen dugunoi eraso egin eta isunak jartzea emakumeen eskubideentzat horren garrantzitsua den egun batean, Martxoaren 8an, manifestazio bat antolatu nahi izateagatik. Gure manifestazio eta adierazpen eskubidearen aurkako eraso da!

Emakume Aske eta Borrokalarioi eta Ikasle Sindikatuak isun bidegabe hau berehala kentzeko eskatzen dugu. Bada garaia gobernu honek bere buruaz, abstraktuan, feminista dela esateari uzteko eta praktikan borroka ateratzen garen emakume gazte eta langileen alde egiteko, ez gure aurka jarri eta isunak inposatzeko.

Borroka da bide bakarra!



Sina ezazu gure aldeko adierazpena web orrian



► KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Gure borroka erabat ezkatu nahi dituzten honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da mugimenduaren izaera borrokalarioa eta antikapitalista aldarrikatzea.

Gure zapalkuntzak arduradun zuzenak ditu: gure orientazio sexuala dela eta, kontratatzen ez gaituztenak; gure ize-na NANn aldatzen uzten ez dituztenak; La Manadaren alde epaiak ematen dituzten epaileak edo Altsasukoak espetxeratzen dituztenak. Sistema kapitalistaren baitan, inoiz ez gara izanen askatasunean garena, sistema hau zapalkuntza

eta esplotazio basatian oinarritzen baita, LGTBI kolektiboa, emakume langileak, gazteak eta orokorrean langile klase mendeant hartzeko.

Gure borroka sistema zapaltzaile honen aurkako borroka bera da. LGTBI mugimendu iraultzaile eta antikapitalista behar dugu gure aldarrikapen guztiak lortzeko eta gizarte berri bat eraikitzeko, klase, genero, arraza edo nazio zapalkuntzarik gabe. Gizarte sozialista bat behar eta nahi dugu, gehiengoaren zerbitzura egongo dena, demokratikoki antolatua, denok benetako askatasunean bizi ahal gaituzten.

Ezker Iraultzailearen Marxismo Hoy aldizkari teorikoaren ale berria

Emakumeen borroka ez du mugarik: mundu osoan milioika emakume altxatu gara jasaten dugun indarkeriaren, zapalkuntzaren eta izurri ororen aurka. Horri erantzunez, klase agintariak "feminismo liberal eta transbertsala" eraiki du, feminismoak duen klase izaera eta jasaten dugun zapalkuntza bikoitza (emakume eta langile izateagatik) ezkatatzeko. Gure mugimendua sistemari kalterik egiten ez dio zerbaite bilakatu nahi dute.

Arazoi asko dago Marxismo Hoy-ren ale berria mugimendu indartsu honi eskaintzeko. Aldizkaria, Bárbara Arealen lan batekin hasten da, "Marxismo y feminismo"; bertan, agerian uzten ditu urte luzeetan

mantendu diren gezurrak eta faltsifikazioak, marxismoak emakumeen zapalkuntza ulertzeko duen "gaitasun eza" salatzen duten "ezkerreko" feminismoaren baitan teoriariei aurre eginez. Laura Calderónek eta Ana Garcíaek eridatzen dute, hurrenez hurren, prostituzioari buruzko jarrera abolizionista, klaseko ikuspuntu iraultzaile batetik, eta PP, Cs eta Vox alderdien bloke atzerakoiak defendatzen duen emakumeen aurkako politikaz. Azkenik, bi atal gehitu ditugu duela 100 urte erail zuten Rosa Luxemburgo iraultzaile poloniar-alemaniarri eta Internazional Komunistari eskainiak.



BENETAN GARENA IZAN NAHI DUGU

LGTBI mugimendu iraultzaile eta antikapitalistaren alde

LGTBI komunitatearen eskubideen aldeko borroka inoiz baino beharrezkoagoa da. Gure kolektiboaren aurkako indarkeria izugarri ari da zabaltzen mundu osoan: 75 herrialdeetan LGTBI izatea delitua da, eta 15 herrialdeetan sexu orientazioa heriotza zigorrerako arrazoi izan daiteke. Ezin dira ahaztu Txetxenian diren kontzentrazio esparruak edo Brasilen eraildako Marielle Franco ekintzailea.

Estatu espainiarrean, 2017an 623 eraso gertatu ziren. Aurten, Madrilén bakarrik, dagoeneko, 345 eraso gertatu dira. Hori LGTBI pertsonok bizitzaren eremu guztietan sufritzen dugun zapalkuntzaren alderdi bat besterik ez da. Gaztetxoeren artean, datuak izugarriagoak dira: trans adin txikiko eta nerabeen %80ak bere buruaz beste egitea pentsatu du, eta %40 saiatu egin da.

Diskriminazio hau ez da halabeharrez gertatzen. Paitzen dugun sistemaren ondorioa da. Kapitalismoak langileok eta gazteok austeritatez eta miseria zigortzen gaituen moduan, eskuinaren eta Eliza Katolikoaren ideologia ustela hauspotzen du matxismoa eta LGTIfobia barreiatzeko.

Eliza eta eskuina: zapalkuntzaren, homofobiaren eta matxismoaren bermeak

Alderdi Popularrak, Ciudadanos-ek eta Voxek ADN frankista eta ideologia atzerakoi berbera partekatzen dituzte. Hirurek eredu katoliko, apostoliko eta erromatarrean sartzen

ez den orenen diskriminazioa elikatzen eta iraunkortzen dute. Eta ondorio gogorrenak, beti bezala, langile familiarako kideok ordaintzen ditugu. Zerrenda arras luzea da: Pablo Casadorentzat “ezkontza da soilik senar-emazteen artean egiten dena”; Fernando Paz Albaceteko parlamenturako hautagaiaren aburuz, “ba omen dira terapiak gayak zuzentzeko”; Albert Riverak, bere aldetik, ondokoa bota du: “homosexualen artekoari ezkontza deitzeak alferrikako eta ekidin daitezkeen tentsioak sortzen ditu”.

Eliza Katolikoa eskuinaren eta komunikabideen eskutik dabil. Botere ekonomiko eta politikoekin bat egin da dago. Eta horretaz baliatzen da haren ideologia hezkuntza sisteman zabaltzeko. Haurren sexu abusuengatik salatua izan den hierarkia bera ausartzen da, inolako lotsarik gabe, LGTBI kolektiboa kriminalizatzen, jende gaixoa eta antinaturala bailitzan, gure aurkako diskriminazioa eta zapalketa iraunaraziz.

Bidea borroka eta antolakuntza dira

Aurten gogoan ditugu duela 50 urte Stonewallen gertatu zen matxinada eta duela 42 urte egin zen estatu espainiarreko gayen lehen manifestazioa. Bertan 4.000 lagunek parte hartu zuten LGTBI komunitatearen eskubideen aldeko oihua kalean ezarri. Bi kasutan, mobilizazioetan parte hartu zutenek poliziaren errepresio bortitza jasan behar izan zuten. LGTBI kolektiboaren aldeko mugimenduaren hastapenetan, langile klasearen sektorerik kolpatuenak egon ziren. Askatasun sexualaren alde altxatu zirenek erabateko berdintasunaren alde egin zuten: lanpostu baten alde, laneko esplotazioaren aurka eta lan baldintza duinen alde. Une honetan, sistema kapitalistak mugimendua otzandu nahi du, karnabal huts bihurtu, beti ere, enpresa pribatuak aberastu daitezzen, eskuinari eta gure zapalkuntzaren benetako ardura dutenei ere tokia eginez.

3. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶

10. zenbakia

633 133 818
askeetaborrokalarriak@gmail.com
www.libresycombativas.net



**Ikasle
Sindikatu**

**EZKER
IRAULTZAILEA**